

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

327

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 16koa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2012ko abuztuaren 20ko Ebazpenaz (EHAA, 2012-09-06; 184. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Deialdi honi dagokion lehenengo azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen da honen bitartez. Hortaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2012ko abuztuaren 20ko deialdiari dagokion ohiko azterketaldian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda aditzera ematea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/r61-euskera/es helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda horren argitalpena agintzea:

Gasteiz: HAEE, Donostia kalea 1, 01010 PK.

Bilbao: HAEE, Errekalde zumarkalea 18, 48009 PK.

Donostia: HAEE, San Bartolome kalea 28, 2007 PK.

Oñati: HAEE, Unibertsitateko etorbidea 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den biharamunetik hasita, interesdunek 5 egun naturaleko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak beren beregi prestatutako inprimakia erabili behar da. Erreklamazio-inprimakia ebazpen honen I eranskinean eta IVAPeko web gunean aurki daiteke.

Erreklamazioak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dira. Halaber, erreklamazioak aurkez daitezke azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. artikulua dioen edozein eratan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 16a.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.